




ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

III Urtea	1921'ko Dagonilla	32 Zenbakia
-----------	-------------------	-------------

Eleiz gezurezkoaz

Credo in sanctam Ecclesiam catholicam.

Symb. Apostol.

Sinisten dut aldeoroko Eleiz deunagan.

III



ELEIZ gezurezkoa deitzen degu *Protestante*'ena. Protestante'ai, *Aurkalariak* esango nioteke euskeraz. Auek bai dira kristautasunaren Jaungoikuagandiko soñera edo etoñera eza-gutu afen, Aldeoroko Eleiz Ama Santaren afezka jeiki diran guziak. Egiaren Erakustzaletako bakañik nai dituzte Liburu Santuak; ez dute eza-gutu nai Eleiz Ama deunagan Jesus'ek emandako eskubiderik, ezta ere Aita Santuagan aren Ordezkorik.

Amaseigafen mende edo eunkian sortuak dira. Beren lengo aita izan zan Martin Lutero.

X-gafen Leon Aita Santuak Aita Dominikañai induljentzi batzuek zabaltzeko eginkizuna eman ziotelako, asafetu zan Lutero, bera Aita Agustindaña zalako. Asi zan induljentzi aietaz gaizki esaten; oiek emateko eskubidea Aita Santuari ukatzen, eta azkenean Witemberg'eko *plazan* efe zuan, bere kaltetan Aita Santuak emandako *Agiria*.

Andik zortzi urteen buruan bere fraile jantziak utzirik, monja bat atera erazi zuan bere konbentutik eta onekin bizitu zan bizitzarik lotsagariñean.

Laxtef artu zuen bide ber-bera Zwinglio'k Suiza'n eta Kalbiko'k Jinebra'n. Inglateñan befiz, bertako efege VIII-gafen Enñike'k lena Lutero'ren kaltetan azkañ lan egin zuan; baño gero bere Andrea utzirik beste batekin bizitzeko eskubidea Aita Santuak ukatzen ziolako, bere siñismena ukatu, ta Inglateñako Elizaren Buru bere burua jañi zuan. Oña Aurkalari edo Protestante'en gurasoak.

Ikus zagun orain, *beren Eleizak ez dituala egiazko Eleizaren eza-gungariak edo berdin dana gezurrazko eleiza dela Aurkalariena.*

Aurkalarien Eleiza ez da bata edo batasuna duna.

Protestante edo Aurkalarien gurasoak beñere ezin alkaf-artu zuten siñistu beaf zituzten egi-nagusi, beafezkotan. *Quot capita tot sensus*: zenbat buru, ainbat uste. Auxe aitortzen zuan Lutero'k berak 1525'ean «zenbat buru beste ainbeste bereizte ta siñestasun ba-dira urbil. Onek ez du nai Bataiorik; afek Aldare'ko Sakramenturik ere ez; beste onek mundu bat osoa jartzen du oraingo bizitza ta azken juizio egun artean, beste batzuek erakusten dute Jesukristo ez dala Jaungoiko. Ez da iñor motelena ba-da ere, Espiritu Santuak argitua balitz bezala, bere buruko iruditu ta era-aldiak gerta-kizunak bezala saldu nai ez digunik».

Erki-Alkartuetan (Estados Unidos) bakafik ba-ziran orain gutxi 288 siñiste bereziak dituzten Aurkalari eleizak. Londres ta bere auzotan ba-dira 100 eta bereiztasun geiago.

Beren guraso izanagandik asi-ta gauf arte, beren siñisteko egi beafe-nezkoak aldatuz dabilta beti ta ezin bestela izan. Beren Erakusletako Biblia bakafik ezagutzen dute, *an diona bakoitzari irudi zaion bezala artuz*. Ortik alkaf ezin adierazia.

Bereixtasun ortatik nai ta naiez etortzen zaiote Sakramentuetako ta Elizkizunetako berexotasun izugafia.

Aurkalarien eleizak ez du ba batasunik ez beren siñisgaietan ezta ere beren Sakramentuetan. Beraz ez da au egiazko Eleiza.

Protestante edo Aurkalarien Eleiza ezta deuna edo santa.

Histori edo edestiak erakusten digu eleiz ofen sortzaleen bizitza lotsa-gafia. Gizon efe-min, jan-edanean neufigabeko, itzik santuenak lasaikeriz austen zituan bat izan zan Lutero. Zwinglio'k onela zion: «Lutero'ren liburu-en bat dakustanean lorategi edef bateko loreak galtzera botatzen, kufuxka dabilen zefi zikin bat (onela) ikusten detela deritzait; berolaxe erabiltzen bai ditu Lutero'k gauza santuak.»

Kalbino'k zion: Lutero oso gaiztoa da. Obe litzeke bere loikeritan neufia aftuko ba-lu, gure izen onaz! ¡Bere gaiztakeriak obeto ezagutzea obe lukel!»

Kalbino'ren erakusle izandako Wolman'ek zion: gizatzaf ta asafekofa da Kalbino». Bezak befiz: Kalbino ez da beñere neufian bizitzera, oitura garbietara eta egia esatera oitu: loiean ondaturik bizitu da:»

Zwinglio Zuritx'ko Apaiza zan baño Apez jantziak utzirik alargun gazte, lotsagabe batekin bildu ta bizitu zan Eleiz Ama Santaren aurka edo kaltetan jeiki zan ezkerroz.

Enrike VIII-gafena, bere andrea utzirik, beste batekin bizi nai zualako Eleizatik berezia, artaz ere aspertu ta, beste bostekin ezkondu zan oraindik.

Ofa ba Aurkalari edo *Protestante*'en elizaren sortzaleak, ofa bere gurasoak.

Nolakoa izango ote da aiengandik sortutako eleiza?

Oien bizitzaren antzekoo da erakusten zutena. Erakusten zuten *ona*



izatea ta gauza onak egitea alperikakoa ta kaltegarri ere bai zala zeruratzeko. Siñismena aski zala ta gaiztakeririk aundienak egin aŕen zerurako dala bat. «Siñismenari eutsi ta egin nai dezun aña pekatu» esaten zion Lutefo'k Melanckton'eri. Nolako zitu edo frutuak emango ditu ofelako azi gaiztoak? Lutero'k berak ikusi zuan ori onela esatean: gutxi beaŕ da, dio, gure Alemania'k, Ebanjelioaren argia ikusi ondoan, deabruak artua iruditze... Jaungoikoaren bildufak alde egin du, gaiztakeri guzien ugoldea edo usaldia da au.» (Coment. in II Petri, 2.)

Aurkalarien eleizan eztago, ba, santutasun edo deuntasunik.

Aurkalarien eleiza ez da aldeorokoa.

Bera ez da sortu amaseigafen mende edo eunkiraño. Beraz alde oriatik ba du utsa ta ez nolanaikoa. Jesukristo'ren eleiza ba da non ditu bere aŕfekoak Jesus'en egunetaraño? Bere zabaltasunaz ere ez diteke esan aldeorokoa iñolaz, ainbeste zatitan berezia dagoalako. Naiz guziak *Protestanteak* deitu, ez dute alkaŕekin Eŕoma'ko Eleizaren gofotoa beste gauza berdiñik. Nola deitu liteke eleiz bera siñeste bereziak eta apez-buru bereziak izan eta?

Baño Protestante edo Aurkalari sail bakoitza ez baño, beren talde guzia ere oso ufuti dago Eŕoma'ko Eleiz Ama Santa bezala zabaldutze.

Ez da, geroztik, aldeorokoa ere.

Aurkalarien eleiza ez da Apostoluena

Apostoluak egi ber-berak erakutsi zituen eta guzientzat siñistatzeko beaŕfezkoak bezala; ez Aurkalariak erakusten duten eran.

Gañera nola esan ote dezakete Protestanteak Apostoluen'gandik dutela beren eskubidea, aien ondorekoen aurka goratuak badira?

Lutero'k ezagutzen zuan, bai, bere eskubidea nondik zuan ezin esan zuala ziuf edo egiaz. Argatik batzuetan esatan zuan Witemberg'eko Efi-Buruagandik zuala ta bestetan beŕiz bera jakintsu (doctor) izatetik zetorkiola zion. Ogei ta lau urteen buruan amalau aldiz gauza beŕia esan zuan gai ortaz.

Egia baita iñorengandik ez zuala alako esku biderik. Jesukristok'k Pedro'ri ta aŕenai eman zien eskubide ori ta Pablo Santuak madarikatzen du besterik erakusten duan edozein. Beren gogoan eman zielako, iñoren eskubiderik gabe erakutsi zuten, ba, Aurkalari edo Protestanteak.

Inglateŕan protestante egin ziran Obispoak ba zuten ordun Apostoluen eskubidea Apezak egiteko ta. Baño Aita Santuak emana zuten eta beraŕek kendu zioten eta geroztik ez d ite. Ikusi degu, geroztik, Aurkalarien eleizak ez duala Egiazko Eleizak beaŕ dituan lau ezagungafietatik bat bakaŕik ere. Aurkalari edo Protestante'en eleiza gezufezko eleiza da geroztik eta beraŕgan ez diteke zeruratu.

Intza'r Damas. A. O. M. Cap.



ZURE GUDARIAK

(Josu-Biotzaren Jaureskunde (entronizazio) nagusian jaupalgaietxe
(seminario) batean irakurria.



Etofi zaigu gure Bakalduna.
Portu zaitezte: Bera da zoruna.
Aulentzat, indaia,
otzantzat, gaia,
gaxoarentzat anai ta laguna.
Poztu bai, zuek gudari lardenok,
gudan sartzeko pozez zaudetenok.



Guda ifintzia entzun da mendian
ta alkaftu dira basefi ta urian
gaizkile lapufak...
gure etsai andufak
Jaunaren kaltez gofoto bizian.
Bañan ez izan beldufik gogoan,
bai daukagu-ta Bakalduna alboan.



¿Zer dagiteke gu-kaltez gaxoak?
¿Zer dagiteke, ba, beren besoak
ezpata zofotzaz,
suz ta eriotzaz
gukin gudatzen ba-du Jaungoikoak?
Poztu, ba, zuek gudari lardenok
gudan sartzeko pozez zaudetenok.



Atozte onuntz Jaunaren aufera
gogof ekiten emen ikustera.
Indaftu eskuak
ta artuta izkuluak
ekin guziok Jaunakin batera,
ekin zabaltzen aufera bidea
izan dedintzat ludia Berea.

Ara etsaiak ikaratu dira.
Begira zuen ezpaten dirdira
ikusi ta, igesi
Mendi ari-esi
muru ta baso utzi ta ilundira.
Poztu, mutiak, eldu da ekaitza:
poztu gurea da-eta garaitza.



Begira zenbat dagozten zuen zai
negar ta negar ots-egiten Jaunari:
negafok txukatu,
estuntzak askatu
etsaien kaltez jafi oro ernai
Gudako neke ta atsekabe gaitzak
zuentzat bitez betiro emaitzak.




Loiolataren odola gafetan
daramazute biotz ta zañetan:
ezpata eskuan
indaia besuan
¿zertaz, ba, belduf gudaka latzetan?
Guda gaitza da gure etofkizuna:
begira nor dan gure Bakalduna.



Bakaldun ori, beira gudariok
gudari-burniz Zeofek jantziok,
Emaiezu indaia,
indaia Zerutara
izan deiztentzat Zure maitatiok.
¿Arki ditzala, afen, guda-ostean
gure gorpuk Bere ikufinpean!

Jauregi tar Koldobika



Bakaldun=errego. Zoruna=zoriona; andurra=zitala; dagiteke=egin lezakete;
izkullu=arma; ari-esi=muralla, ikurriña=bandera.



ESKALERA TXURITIK..

ZERURA

(Umeentzat)

I

EUSKAL-efiska batean ba-zan apaiz bat on-ona, bere eliz- tañak alik ongien zuzentzeko, gogotik lan egiten zuena. Bazekian apaiz onek, oraingo umeak geroko gizonak izan beaif dirala, ta umeak gaitetik ondo zuzendu ezik, gero gizon okeñak, gizon gaiztoak egin oi dirala. Ofegatik bere ajolarik aundiena, bere ardurarik biziena umeak ondo aztea zan.

Igande goiz batean, bederatzi orduetako inguruan, sartu nintzan ni efi ontako elizara ta an arkitu nuan apaiz ura, umetaldetxo batez ingurutua, dotriña edo ofolako gauzaen bat irakasten ari zela. Ona emen, orduan nik entzun nuen guztia.

II

—Ene umetxoak, esaten zien apaizak; zerura joan nai dezute?

—¡Bai jauna! erantzun zioten umeak, beren mintzura (boza) ezti, gozoa geiegitxo goratuaz.

—Baña, ¿nondik joaten da zerura?

—Eskalera txuritik, jauna, eskalera txuritik.




—Ta ¿zer da eskalera txuria?

—Ama Birjiña

—Edefki, umetxoak, edefki. Ondo dakizute ainbeste aldiz erakutsi dizutedan lezioa. Orain befiz edatsi (kontatu) nai dizuet, amaika aldiz esan dizuetedan *eskalera txuriaren* ipuitxoa (kontua). Ixil-ixilik guztiok.

Leon zeritzan praile prantziskano batek, lotan zegoalarik, amets zora-gari bat izan zuan. Ikusi zituan bi eskalera (zurubi); bata gofia ta bestea txuria. Andi-andiak ziran biak; lufetik zeruraño eltzen ziran. Zurubi gofiaren goi-mutufean Jesukristo ta Prantzisko santua zeuden izketan; txuriaren goi mutufean Andre Maria, ogendunen (bekatarien) Ama efukitsu gozoa. Lufean, bi zurubien (eskalera) azpian, beredin praile zebiltzan, zerura igo naiez. Prantzisko santuak zerutik oi u egin zien bere semeai: semeak, atozte zerura; igo zurubi (eskalera) goritik. Asi ziran praileak igoten. Baña jau zoritxafa! jau negafgaría! Bata irugafen mailatik, bestea boskafenetik, bestea seigafenetik, ofela praile guztiak banaka-banaka lufera erori egin ziran.

Orduan Prantziskok, biotza mindurik oi u egin zien befiz bere semeai: semeak, utzi zurubi gofia ta joan txurira; txuritik zerura etofi: Leiaz ainbat lastefen joan ziran praileak eskaiera txurira ta asi ziran andik zerura igoten ¡Ta andik edefki igo gero! Boskafen edo seigañen mailera iritxi zirenean, Ama Birjiña atera zitzaien bidera ta eskutik eldurik guztiak eraman zituen zerura ta orain zeruan daude praile aiek Ama Birjiñarekin batez, betiko zorionez ta atsegiñez gozatzen. Azkena eman zion apaizak bere ipuitxoari



Regina Ordinis Minorum

(kontuari) ta befiz itz egin zien umeai:—Umeak, gbadakizute orain nondik joaten dan zerura?

—Eskalera txuritik.

—Ofetarako Ama Birjiña biotz-biotzez maite bear da, ez?


—Bai jauna.

—Edefki, umetxoak, edefki. Ziuñ egon zaitezte, ori egitera, Andre Mariak bere aldera, zuek guztiok zerura eramango zaituztela. Au esanaz, Iru Aguf Maria, Andre Mariari eñezaturik, atera zituen umeak kanpora.

III

«ZERUKO ARGIA» irakurtzen (leitzen) dezuten euskal ume oiek, benebenetan zerura joan nai dezuten umetxo lastan oiek, apaiz afeñ bere kontuko umeai bezela, nik ere orain zueri diozuet: eskaiera (zurubi) txuritik joaten da zerura ta zurubi txuria Andre Maria da. Beraz biotz-biotzez maite zazute Ama Birjiña etzaitzete ¡afen! ez oera joan ezta oetik jeiki, egunean-egunean Andre Mariari Iru Aguf Maria bederen eñezatu gabe.

Iur'e'tar Julian A. O. M. Cap.





Maria Andredena'ri



(Donosti'ar J. A. Ak. asmatua)

Astiro (denak.)

An - dre Ma - ri go - zo - a ze - ru - ra bai

(Oñezkoz)

zo - az: poz - tu - rik gau - de, A - ma, O - roi lu - fe ko - az.

Batzuek arin samar

Je - sus mai - te - ak ar - tu - zin - du - an be - rak be - re es

kuz ber - pis - tu - rik be - re be - so - az eus - ten zi -

Denak

zu - an Ain - ge - ruz - gain - di go - ra - tu - rik.

MARIA ANDREDENARI

Jesus maiteak artu zinduan
Berak bere eskuz berpizturik;
bere besoaz eusten zizuan
aingeruz gaindi goraturik.



Lufeko negar samin ta latzak
egin bai ziran lufarako;
Zeruko izañan argitasunaz
jantzi nau Jaunak zerurako.



Nola zoazi, Ama laztana,
ume gaixuok utzirikan?
Ez daukat aurtxo, nere laztanak,
zuek uzteko asmorikan.



Ezkontzeko Prestaera

VIII

Ezkontza deun edo santuak

I §

Nere Josefina maitea:

Nere adiskide on eta aide dan Joserekin daukadan eskutitzez edo kartazko artu-eman ontan zearkatu edo artetu zeralako, asko poztu naiz; nere kolkorako gordetzen dedan zerbaitengatik, berari esaten ausartuko ez nintzen gauz batzuek zuri esan al izango dizkitzut eta. Zuk, nere alaba ofek maltzurkeritik urbil dabilen bakintasun zuri garbi batekin galdetzen didazu ea gazte elizkoi eta garbiari ezkondu nai izatea ta Jaungoikoari senar on bat eskatzea ziflegi zaion; ta maltzurkeri antza daukala diot, nik uste baitut zuk abestutzen kantatzen entzun dezula edo kantatu dezula zure bakafean onako neurritz (berso) au:

Iru gauza nago otoizka

Karmen'go Birjiñari:

Zerua eta dirua

Senar on-on batekin. *eta...*

Zure galdea zerbaitengatik egin didazula adierazteko, diozu zure adiskidetxo batek askotan esan dizula ezkondata emakumea deun edo santu egin ta Zeruan zorion aundia iritxi dezaken, niri galdetzeko, gero nik impren-taz irarkolaz erantzun dezadan, zer alote edo duda izan diteke gauz ontaz? Baño gaizo ori ala ote dan edo ez al zaude? ¿Ezkontza sakramentua dala ez ote dakizu? ¿Ez dakizu bea bezela artzen duana, ematen duan grazia edo eskefaren bitartez Jaunaren adiskide egiten duala? Ez dakizu Trento'ko eliz-batzafeak dionez gizonaren egintza izan ez ezik Jaungoikoaren egitea ere dala? Ta au ala dan ezkeru gauza jakiña artzen dutenak santu egiteko indafa ba-daukala.

Deuntasuna edo santutasuna ta birtute bikañak, gixa guziekin etortzen dira, luñalde guzietan aunditu, eñal le guzietan beñitu ta Jesukristok ipiñitako bizibide guztiak, bai ta ezkonduarena ere, usai gozoz betetzen dituzten lore-ak dira. Goian aitatu degun Trento'ko eliz-batzañak erakutsi zuen bezela gizkarbitasuna (virjinidadea) ezkontza baño ohea dala egia da, ta beti ala izango da; orobat, lenengoen bizieran, bigaenarenean baño bide geiago di-rala deun edo santu egiteko; baño au bezin gauza jakiña da kristau guziak ez diela santu edo deun egin bea biziera oberenean, baizik Jaungoikoak deitu dituan artan ta ez bestela; era berean egia da orretan ta ez bestean ematen dituala Jaunak santu izateko egokiak diran bideak. ¿Monika deuna ez ezkondu ezkeru, deuna, santua, eta Agustin deunaren ama izango al zan?

Gertaerak ere Ezkontzaren santutasuna erakutsi egin digute. Begiratu bestela Jaungoikoa goratuaz eta lagunai ikasbide ona emanaz ezkondurik

bizi izan diranai. *Ezkonduentzako egutegi edo kalendario* bat egin liteke egun bakoitzan senaf edo emazte bikaña izan den baten izena jariaz. Ta egutegi edo kalendario ori egin ondoan oraindik jafi gabe beste zoriontsu asko geldituko lireke, egun askotan santu izan ziran pamili edo sendi osoak Sinforosa santuak eta bere zazpi semeak (bezela jafi afen) Lorentzo odol emalle ta orontzio gotzai santuak semetzat izan zituzten Orontzio ta Pazienza bezelakoak egun askotan jafi afen.

Nik adierazi al baño askoz obeto adierazten dute Ezkontzaren santutxak santu ezkontuen talde goragafiak; ta argi erakusten du ezkontuak santuki ez badira bizitzen, ez dala ofetarako biderik ezaz, baizik ezkontuei Jaungoikuek ematen dizkien santuak izateko bideetatik onik ateratzen ez dutelako. ¿Nork galerazten die ezkontu beartsuak Isidro santu nekazaria ta Maria de la Kabeza santua bezela bizitzea? ¿Eta goieneko bizi-malakoak ba'dira Kunegunda egegiña eta bere senaf Enrike kaiser edo enperadore santuak bezela izan beaf? Eta tarteko bizi malakoak badira? zergatik ez ditzeke Lukesio zoriontsua ta Bonadona zoriontsua bezela santuak deunak izan?

Ezkontu kristau utzi ta zabañ askok, beren onbide eta birtute gutxiaren efua (kulpas), beren nai ta naiezko egin beafai botatzen diote; baño olako aitzakiak gezurti ta indafik ezdutenak dira, berak dituzten eginkizun eta lanekin besteak santu edo deun egin dira ta egiten dira. Ez dago ezkontzan Jaunaren gogoak betetzeko zailtasun edo nekea; ezta santuak izateko eragozpen edo traba; baizik kristauaren eginbeafak aztutzean, Jaunaren gogoak egitera baño munduarena egitera geiago ematean, ta Jaungoikoaren naia ta gogoak gureen atzean jartzean; ezpalitz onegatik ederki santu edo deun egin litezke ezkontuak; baita ere ontasunaren tontoferano igo ta zerurako zorion aundia irabazi.

Ambrosio Anaia O. M. Cap.

Sebastian Doatsua, Lekukoa

II



romanzio Agintariak gero, Sebastian Doatsuaren esanak egiñik, Efomako uriko agintea utzi ta bere etxea kristauen gordeleku biurtu zuan.

Diokleziano agintariak orduan Kromanzioaren lekuko agintaritzat Fabian biotz gogofa izentatu zuan eta biak asi ziran Efomako kristafai gogof erasotzen

Eraso aldi au geroago ta gogofago zijoalako ta Kaio Aita Doatsuak, Sebastian Doatsuak eta Polikarpo Doatsuak ala erabaki zutelako, Kromanzio Efomatik Kanpañako bere lufetara aldatu zan, nai izan zuten kristauakin batean, guzien Apaiz Polikarpo Doatsua zala ta antxe guzien gordelekua izan zan.

Efoman geratu ziran kristauak ordea, au da, Kaio Aita Doatsuak, Sebastian Doatsuak, Tiburtzi Doatsuak (Kromanzioren semeak) Marko ta Marzeliano Doatsuak, Trankilinok, Nikostratok, Zoek, Klaudiok, Bitorianok, Kastulok, Kastofek, Sinporianok eta baita ere beste Doatsu askok Jesukristo'ren lekukotasuna laister eman zuten beren odolaz eta biziaz.

Doatsu auek artean azkenengo zoriontasun aundi au iritxi zuana Sebastian Doatsua izan zan; eta era onetan gertatu zan. Fabian biotz gogofak jakitean Doatsu au izan zala, len aitatu ditugun Doatsuen zuzendaria bezela ta geroztik ere Jesukristo'ren aldeko lanetan alegin guzian saiatzen zala, Diokleziano Agintariaren auean salatu zuan. Agintari onek orduan, oso mindurik, eskergabekoa, saltzalea, deitu zion Doatsu onj, Gurutziltzatua agurtza Jauregian ere sartzeaz, Agintepeko jainkoen asafea Agintariaren eta agintearen gañera erakartzeko lanetan ari zala-ta.

Doatsu onek erantzun zion Agintariaren eta agintearen kaltezko lanik etzuala egiten Jesukristo agurtzeaz. Oso bestera, Jaungoiko guzialtsu ta ongile aundi oni osasuna ta zoriontasuna eskatzen zizkiola Agintariarentzat ta agintearentzat, berenganako eginkizunak zintzo-zintzo beteaz. Agintepeko jainkoen asafearen bildufik etzuala euki beaf, ez da ere aien altasunean bere ustea jafi, jainko aiek ezertarako gai etziranak, jainko irudi utsak baño etzirala-ta.

Agintariak au aditzean, su ta gar egiñik, Doatsu au abe batean lotzeko ta dardaika (saetaka) iltzeko agindu zuan. Gudalariak ordea abean lotu zuten eta dardaiz josi ta ildakotzat utzi zuten. Baña Irene Doatsuak, Kartulo Lekuko Doatsuaren alarguna zanak, bere Gorputz-ila lurperatzeko asmoaz lenengo gabea ara jotzean, bizirik arkiturik, ixil-ixilik bere etxera eramanean zuan eta laixter afigafizko eran oso sendatu zan. Kristauak orduan Doatsu oni eskatzen zioten, afean, ezkutatzeke. Baña onek, Jaungoikoari otoitz egin ondorean, Jauregira jo ta Eliogabaloren begiralekua zeritzan eskalera gañetik Agintariari esan zion guzien auean: *Jauna kristauen kaltez jasotzen dituzten gezurak beti siñestuko al dituzu?* kristauak ez dira ordea Agintariaren eta Agintearen etsaiak. Oso bestera, kristauak dira zure mendekorik zintzoenak. Auek iritxi dizute Jaungoikoa'gandik zure zoriontasun guziak.

Agintariak gure Doatsua ildakotzat zeukalako, leku agiri artan bizirik ikusteaz eta bere itza aditzeaz oso afiturik, galdetu zion: *Zu al zera dardaika iltzeko agindu nuan Sebastian ura?* Doatsuak erantzun zion: *Bai, jauna, ni naiz. Nere Jaungoiko guzialtsuak gorde dit bizia kristauai alako gogortasunaz erasotzeaz egiten dezun gaiztakeri eragabekoa, zuri eri guzi onen auean arpe zira botatzeko.*

Agintariak ordun agindu zuan, oso amofaturik, Doatsua Jauregiko jolaslekura eramanda guzien auean makilaka iltzeko. Agindu au bete zuten eta Doatsuaren gogo zorionekoa Zeruko betiko atsegintasunera zuzen-zuzen joan zan 288 gafen urtekoa Ilbeltzaren 20'an

Bere Gorputz il Agurgafia ordea zulo zikin ezkutu batera bota zuten, kristauak artzea ta lurperatzea eragozteafan. Baña afigafizko eran kako batetik zinzilika gelditu zan eta Doatsu berberak lenengo gauean Luzina zeritzan etxeoandre jaieratsuari nun arkitzen zan eta nun lurperatua izatea nai

zuan adierazorik, onek begiramentu aundiaz artu ta katakunbetako ilefian lurperatu zuan.

Laugafen gizaldian, orain mila ta seireun ute inguru, Doatsu aundi ta Lekuko argidotar onen ilefi gañean egin zuten Agurtegi otsaundikoenetatik bat da.

Sebastian, Doatsua uri ta efi askok daukate beren Zaindari berezitzat eta jai aundiak egiten dituzte Ilbeltzaren 20'an.

Aita Eskoriatza



«Ama-Birjiñaren irudi bat»

«Granada'ko Gobernu-etxean artu da Infantes'tako Guardia civil'en-gandik itzegiteko asko ematen ari dan befi au. Befi ortan dionaz, badira zortzi urte efi artako biztanle batzuek, «La Sim» esaten dioten mendi galdor edo mutufean oartzen ziran agertzen zala irudi edo imajiña bat argiz inguraturik.»

«Garzia Muñoz'tar Antonia, efi berekoak askotan ikusi izan zuan ura agertzen. Eta azkeneko astelenean (Garagafilaren 27'an) etofi zan Granada'ra Apaiz bati ikusi guztien befi ematera.»

«Asteartean itzuli zan Infantes'era ta gaueko amaiketan abiatu zan mendira, efiko Buruak, efitafak eta Guardiak ondoan zituala.»


«Beste aldietan irudia ikusten zuan lekuan jafi zan Antonia ta bere lagunak ufutixago.»

«Andik alditxo batera baztar guzti aiek argi biziz bete ziran, guztien begietara Ama-Birjiñaren Biotz Eragabearen irudi bat agertzen zan.»

«Efiko-Buruak eta Guardiak urbildu ziran agertu zan lekura. Jaso zuten irudia ta eraman zuten Efiko-elizara, an arkitzen da orain.»

«Irudiak 50 zentimetro ditu ta alderdi aietako biztanle guztiak ikusten dabilta; gertatu danak asko afitu ditualako.» *Revista Popular'etik.*

Ezkondu baño lenago




ZKONDU baño lenago, ondo oldoztu edo pensatu, neskatz guztiok, ezkonduta gero, nola bizi naiko dezuten; ia senar odolgaiz, biotzbeltz, gogofarekin, ala gizon ezbitsu, samur, otzanarekin.

Nik uste det, senar paketsu ta ezbitsua nayago dezutela, naiz zeoentzako, naiz zuen alaba ta aizpentzako. Eztezute nai noski, zuekin eta etxeko guztiakin, beti iskanbilan eta asafean ibili bea duan gizona.

Baño, ¿nola asmatu zenezakete, zeintzuk diran ofelako gizon zindoak? Ezta, ez, eřexa, asmatzea; baño eginkizun ofetan beñere bide okeřera jo ez dezazuten, ondo gogoan artu orain esatera noakizutena:

Ostatu-zale, edale, eta moskoř diran gizonak, senař iskanbiła-zale eta

Euskuleriko Baztatak



jotzale izan oi dira; ostatuetan berandu dauden mutilak, mutil edari-zaliek etzaitzte ezkondu, bestela damutuko zaizute.

Begira Idazti Deunak edo Eskritura Santuak zer dion:

Ardo asko edateak, sumindura, asāre eta xaupen andiak dakazkieta zauriak egiten ditu.

Eta beste toki batean ere, ara nola mintzo dan: «¿Norentzat zorigaitz ¿Noren aitarentzat zorigaitz? Norentzat zezioak?...¿Norentzat motiborik gabe zauriak? ¿Norentzat begietako itsadura? Ez ote ardoan daudenentzat, eta baso ustutzen atsegin dutenentzat?

Gure Jainkoak Liburu Santuetan dionez, era guztietako zorigaitzak,

ardo-edaleak dituzte: sumindura, asefea, xaupena, zauriak, zezioak, eta beste ainbeste ta ainbeste zorigaitz.

Atsegin al litzaizuteke ofeleko senafarekin bizi bea? izatea?... Atsegin ez ba-zaizute, bada, alde-egin gizon ostatico-zale, edaliengandik, eta zuen senafa bilatu mutil etxeti eta zintzoen tartean. Sena? aberats batek, edalea baldin ba-da, bere ta zuen abera?ki guztiak galdu egingo ditu; gizon etxeti ta langileak, edarietan dirua gastatzen ez duan gizonak befiz, txiroa edo diru gutxikoa izan a?en, zuen aberaskiak eta ondasunak ugaritu eta geituko ditu.

Ez inoiz aztu Eskritura Deunak diona: «*Ardo asko edateak sumindura, asare ta xaupen aundiak dakazki...eta zauriak egiten ditu.*

IZASKUN'ek O. M. Cap.

ESKALEA

KARIKA estu batetik nijoala, eskale agure za? batek geldi-arazi ninduan.

Begiak aundituak eta nega?tsu, eza?nak urdinuak, so?eko za?pil-zikiñak, zauri iguinga?iak...txirotasunak gizaxo ura bai naiko ondatu zuala!

Bere esku gofi, zikin, aunditua luzatzen zidan; asperez ta antzika neri laguntz-eske zegoan.

Begiratzen ditut nere sakelak; ez ziskurik, ez gabeukirik (erlojurik), ezta suduf-zapi bat ere; nerekin ezer ere e-neka?en.

Eta eskalea, bere esku luzatua dardarka, zai ta zai.

Lotsaren lotsaz, zer egin e-nekiala, bere esku zikin dardartsua gogor estutu nion, esanaz:

«Barkatu, ana?txo o?ek; nerekin ezertxo ere ez det-eta»

Eskaleak nigan ja?i zituan bere gegi zabalak, eta bere eza?n urdinuak ipipa?ez zituala, nere beatz oztuak estutu zizkidan.

«Olaxe, anai ori,—abots ga?atzaz esan zidan, eskefik; asko ori ere obari (limosna) bat da»

Eta orduntxe ezagutu nuan, nere anayagandik nik ere zertxo bat artu nuala.

Lizartza'tar Ander A'k euzkeraldua



IDAZTI BĒRIAK

Cancionero Popular Vasco

de D. Resurrección M.^a de Azkue

Euskaltzaindiaren Buru bigaŕen aldiz izentatua izan dan gure Apaiz langile, asperkaitz eta jakintsu onek oraintxe argitaratu ditu Barcelona'n izen ori deramaten lau idazti edo liburu.

Liburu bakoitzak gai berezizko eresi edo kantuak dauzka. Lenengo sailak ogei eresi eŕitat, guziak maitetasunezkoak dakartza.

Bigaŕen salean ogei ta bost, guziak edari-zaleenak.

Irugaŕen salean ogei ta bat, guziak seaska-eresiak.

Laugaŕen salean jafi ditu ogei ta bi dantza-eresi kantatzeko edo abeste-koak.

Lau liburu ta lau sail auetan dauden eresi guziak gure lau Aldundiak ideki zuen *konkurso* edo eskaiean lenengo saria irabazitako eresi edo kantuetatik dira ta argatik oien ontasunaz obegorik ezin esan dezakegu.

Baño gure eŕiaren agotik Azkue jaunak bildutako eresi edeŕ oiei, bere aldetik erantsi diote *piano* rako lagunbide eŕaz bana; eresiak berez eskatzen duan erako lagun-bidea, egileak beren itz-aufean dionaz.

Gure eresi auk askoz geiago zabaltzeko izan diteke Azkue jaunak jafi dien erdal-izkia; baño bilduŕ gera berofengatik erderazko izkia ez ote duten artuko, erdaldunaz gañera gure gazteriak ere, euskerazkoa bazartuaz.

Er si auetaz lagantza-biderik gabe egiteko asmoa daukan liburu edo idazti txikiagoan, poztuko giñeke erdal itzik ez baliote jafiko.

Bere eresi-sail auk oraindik ez dira bukatuak, ikasi degunaz. Oraindikan argitaratuko dira beste saŕen batzuek, ez dakigu zenbat baño.

Betoz ordu onean gure eŕiaren berezko eresi, edeŕ, txukun, gozo, aŕi-gafi oiek gure eŕiaren onerako.

Eta gure biotzeko zorion agufik beroena, onelako lan edeŕari jarduntzen diozun Euskaltzain-Buru ofi.

Ar'tar A.

«JESUKRISTOREN BIZITZA»

Polit polita azaldu, da «Zeruko Argia» argitaratzen dan irarkolan. Maro'tar Pelegrin A'k idatzia ta Arbelaitz'ek euskerara itzulia. 85 ofialde ditu, ta buru edo kapitulo bakoitzaz iduri polit-politak. Liburutxo egokia da batez ere aufen artian euskerazko irakurgai-onak zabaltzeko.

Nai dezuten guziak eskatu lenbailen, «Zeruko Argiaren» banatzaleari; Saria 0'75 pta. izango da.

Iruña'ko Kaputxinotan, Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan.